

# AMOREBIETAKO UDALA

ARKITEKTUA

A ERREDUA

2019-10-17

**1 KONSTITUZIOAK ONARTZEN DITUEN FUNTSEZKO ESKUBIDEEI ETA ASKATASUNEI DAGOZKIEN ARAUAK...**

- 1a) Indarrean dauden legeen arabera interpretatuko dira.
- 1b) Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren arabera interpretatuko dira.
- 1c) Konstituzioan bertan ezarriko dira.
- 1d) Europako Batasuneko legeen arabera interpretatuko dira.

**2 KONSTITUZIOAREN ARABERA, MILITARREN ZIGOR-LEGEETAN GUDA-GARAIRAKO EZARRITA DAGOENA SALBU:**

- 2a) Heriotza-zigorra indargabeturik dago.
- 2b) Heriotza-zigorra indargabeturik dago, larritasun oso handiko delituertarako izan ezik.
- 2c) Heriotza-zigorra indargabeturik dago, Auzitegi Gorenak epai bidez kontraktorik ebazten ez duen artean.
- 2d) Heriotza-zigorra ez dago indargabeturik.

**3 NORBANAKOEN ETA ERKIDEGOEN IDEOLOGIA ETA ERLIJO-ASKATASUNA KONSTITUZIOAN BERMATURIK DAGO:**

- 3a) eta ez du inongo mugarik.
- 3b) eta, adierazteko, ordena publikoa zaintzeko beharrezko mugak besterik ez ditu, legez babesturik baitago ordena hori.
- 3c) indarrean dauden legeetan estatukotzat jotzen bada dena delako erlijioa.
- 3d) Eliza Katolikoa beste dena delako erlijio horrekin lankidetzan badihardu.

**4 ZEIN DA BAIEZTAPEN ZUZENA?**

- 4a) Oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.
- 4b) Ez dago libre sindikatzeko eskubiderik.
- 4c) Sexu bereko pertsonak ezkontzeko eskubidea dute.
- 4d) Konstituzioak ez du jasotzen negoziazio kolektiborako eskubidea.

**5 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN JASOTA DAGOENEZ, SINDIKATUETAN ASKATASUNEZ BILTZEKO ESKUBIDEAK LEGEAREN BIDEZ JARRITAKO MUGAK IZAN DITZAKE, BAINA:**

- 5a) Estatuko administrazioko langileei baino ez die eragingo.
- 5b) Diziplina militarren menpe dauden kidegoei baino ez die eragingo.
- 5c) Funtzionario publiko guztiei baino ez die eragingo.
- 5d) Gizartearentzat oinarrizkoak diren zerbitzuak mantentzeko beharrezkoak diren langileei baino ez die eragingo.

## 6 KONSTITUZIOAN:

- 6a) Jabetza pribatuaren eskubidea eta jaraunspena edo oinordetza jasotzeko eskubidea onartzen dira.
- 6b) Jabetza pribatuaren eskubidea onartzen da, baina ez jaraunspena edo oinordetza jasotzeko eskubidea.
- 6c) Jaraunspena edo oinordetza jasotzeko eskubidea onartzen da, baina ez jabetza pribatuaren eskubidea.
- 6d) Ez dira onartzen, ez jabetza pribatuaren eskubidea, ezta jaraunspena edo oinordetza jasotzeko eskubidea ere.

## 7 ESTATUKO HERRIAREN DEFENDATZAILEAK FUNTSEZKO ESKUBIDE ETA ASKATASUNAK DEFENDATZEN DITU. ZEINEK IZENDATZEN DU?

- 7a) Gobernuak.
- 7b) Gorte Nagusiek.
- 7c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.
- 7d) Erregeak.

## 8 KONSTITUZIOAK EZ DU DEBEKATZEN:

- 8a) Autonomia-erkidegoen subiranotasuna.
- 8b) Autonomia-erkidegoen arteko federazioa.
- 8c) Autonomia-erkidegoen artean lankidetzaz hitzarmenak eta -akordioak egitea.
- 8d) Ezaugarri komunak dituzten probintzien artean autonomia-erkidegoak sortzea, eta, hori, probintziak mugakideak izan zein izan ez.

## 9 KONSTITUZIOAK ONARTZEN AL DU AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARTEKO FEDERAZIOA?

- 9a) Bai, kasu guztietan.
- 9b) Bai, baldin eta erkidego mugakideak badira.
- 9c) Bai, baldin eta erkidego mugakideak badira eta, horrez gain, elkarren artean harreman historikoak eduki badituzte eta hizkuntza bera badute.
- 9d) Ez, inoiz ere ez.

## 10 KONSTITUZIOAK BERARIAZ ESTATUAREN ESKU UTZI EZ DITUEN AGINPIDEAK:

- 10a) Estatuarenak baino ez direla ulertu beharko da.
- 10b) Autonomia-erkidegoek bere egin ahal izango dituzte, estatutuaren arabera.
- 10c) Autonomia-erkidegoek baino ez direla ulertu beharko da.
- 10d) Bien artean banatutako aginpideak direla ulertu beharko da.

**11 ESTATUKO ZUZENBIDEA BETI IZANGO DA:**

- 11a) Lehentasunekoa autonomia-erkidegoetakoarekiko.
- 11b) Autonomia-erkidegoetakoaren menpekoa.
- 11c) Autonomia-erkidegoetakoarekiko konkurrentea.
- 11d) Autonomia-erkidegoetakoaren osagarria (supletorioa).

**12 FUNTZIONARIOEN ESTATUTUARI BURUZKO OINARRIAK ESTATUARI DAGOZKIOLA ALDE BATERA UTZITA, ZEINEN ESKUMENENKO GAIA DA EUSKAL HERRIKO ZEIN TOKI-ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN ESTATUTUA?**

- 12a) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusibokoa.
- 12b) Gai horretan Euskal Autonomia Erkidegoak oinarrizko legeria lege bidez garatzeko eta betearazteko eskumena du.
- 12c) Gai horretan Euskal Autonomia Erkidegoak betearazteko eskumen hutsa du.
- 12d) Gai horri buruz ez du ezer esaten Autonomia Estatutuak.

**13 GAI HAUETAKO ZEIN DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBOA?**

- 13a) Ehiza eta ibai-arrantza.
- 13b) Kooperatibak.
- 13c) Mendiak, Konstituzioko 149.1.25. artikuluari kalterik eragin gabe.
- 13d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**14 GAI HAUETAKO ZEIN DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBOA?**

- 14a) Barneko azoka eta merkatuak.
- 14b) Ikerketa zientifiko eta teknikoak, Estatuarekin koordinatuta.
- 14c) Estatuaren jabetzakoak ez diren artxiboak.
- 14d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**15 EUSKADIK ERABATEKO ESKUMENA DUEN ARLOETAN ZEIN DA APLIKAGARRIA?**

- 15a) Estatuko zuzenbidea.
- 15b) Euskadiko zuzenbidea.
- 15c) Lurralde historikoen foru arauak.
- 15d) Konstituzio Auzitegiaren epaiak.

**16 NOIZ LORTZEN DA FUNTZIONARIO-IZAERA EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA?**

- 16a) Dagokion hautaketa-prozesua gainditzean, baina, beti ere, prozesua publikotasunaren, berdintasunaren, gaitasunaren eta merezimenduaren printzipioetara egokitzen denean.
- 16b) Arauzko epearen barruan lanpostuaz jabetzean.
- 16c) Eskumena duen agintariak izendapena ematen duenean.
- 16d) Zerbitzuak 18 hilabetez etengabe eskaini ondoren.

**17 FUNTZIONARIOEK, GUTXIENEZ, ZERBITZUAN EGINDAKO URTE BAKOITZAGATIK, ZEIN EPEKO OPORRAK HARTZEKO ESKUBIDEA DUTE?**

- 17a) Hilabetea.
- 17b) 30 egun natural.
- 17c) 22 lanegun.
- 17d) 4 aste.

**18 NORBERE GAUZETARAKO BAIMENA:**

- 18a) Ordaindutakoa da beti.
- 18b) Funtzio Publikoari buruzko Legeak berak ezarritako kasuetan besteetan ez da ordaindutakoa.
- 18c) Baimen hau ematea, zerbitzuaren beharren menpe geldituko da, eta horren iraupena, bateratuta, bi urteko, ez da hilabetetik gorakoa izango.
- 18d) Baimen hau ematea, zerbitzuaren beharren menpe geldituko da, eta horren iraupena, bateratuta, bi urteko, ez da hiru hilabetetik gorakoa izango.

**19 FUNTZIONARIOAREKIN BIZI DEN EZKONTIDEAREN, AITAREN EDO AMAREN GORPUTZEKO EDO ADIMENENKO EZINA DELA ETA,:**

- 19a) Lanegunaren herena edo erdia gutxitzeko eskubidea izango du, ordainketa guztiak hein berean beheratuko zaizkiola.
- 19b) Lanegunaren herena edo erdia gutxitzeko eskubidea izango du, ordainketak beheratu gabe, beti ere, behar bezala zuritutako kasuetan.
- 19c) Ordainketak %5ean igotzeko eskubidea izango du, sor daitezkeen gastuei aurre egiteko.
- 19d) Ordainketak %10ean ere igotzeko eskubidea izango du, beti ere, gastua behar bezala zuritutako kasuetan.

- 20 ONDORENGO HAUETARIK, ZEIN EZ DA TOKIKO ERAKUNDEETAKO LANGILEEN ESKUBIDETZAT JOTZEN?**
- 20a) Kargua izateko eskubidea.  
20b) Administrazioko karrera egiteko eskubidea.  
20c) Etenik gabeko lanbide-prestakuntzarako eskubidea.  
20d) Langileak zerbitzua non ematen duen, udalerrri horretan bizi izateko eskubidea.
- 21 7/1985 LEGEAREN ARABERA (TOKI-ARAUBIDEARI BURUZKO OINARRIEN LEGEAREN ARABERA), NORI DAGOZKIO UDAL-GOBERNUA ETA UDAL-ADMINISTRAZIOA?**
- 21a) Beti, Udalari, alkateak, zinegotziek eta alkate-ordeek osatutako Udalari alegia.  
21b) Beti, Udalari, alkateak eta zinegotziek osatutako Udalari alegia.  
21c) Udalari, alkateak eta zinegotziek osatuta dagoenean, kontzeju irekien araubidearen arabera funtzionatzen duten udalerrietan izan ezik.  
21d) Aurreko erantzun guztiak dira benetakoak; kontua da ea udalerriko eskubideko biztanle-kopurua 500 biztanletik gorakoa edo beherakoa den.
- 22 7/1985 LEGEAREN ARABERA, ZEINEK ONARTZEN DITU UDALETAN LANGILEAK HAUTATZEKO SAIOETARAKO OINARRIAK?**
- 22a) Udalbatza osoak.  
22b) Alkateak.  
22c) Langile-buruak.  
22d) Korporazioko idazkariak.
- 23 7/1985 LEGEA. ADIERAZ EZAZU ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA**
- 23a) Langile-buruaren eskumena da udaleko langile guztien buruzagitza gorena betetzea.  
23b) Udalbatza osoaren eskumena da alkatearen agintaritzari men ez egitearen arau-hausteak zehatzea.  
23c) Alkatearen eskumena da aurrekontuan aurreikusitako moduan ondasun higiezinak eskuratzea.  
23d) Udalbatza osoaren eskuan dago alkate-ordeak izendatzea.
- 24 7/1985 LEGEAREN ARABERA, NORI ONARTZEN DITU BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEK ESKUORDETZAN UTZITAKO ESKUMENAK?**
- 24a) Udalbatza osoak.  
24b) Alkateak.  
24c) Tokiko Gobernu-Batzarrak.  
24d) Dagokion foru-erakundeak.

**25 NOLA ARAUTUKO DA UDALERRIAK SORTZEKO EDO EZABATZEKO AHALMENA?**

- 25a) Toki-erregimenari buruzko autonomia-erkidegoetako legeen bidez.
- 25b) Foru Aldundietako arauen bidez.
- 25c) Estatuko legeen bidez.
- 25d) Herritarren interesen arabera.

**26 ERROLDAREN DATUAK...**

- 26a) Beste herri-administrazio batzuei utz dakizkieke, eskatzen badituzte.
- 26b) Estatistika ofizialak egiteko erabil daitezke.
- 26c) Edonola ere, besterenezinak dira.
- 26d) Lehenengo bi erantzunak zuzenak dira.

**27 ZEINTZUK DIRA UDALEKO OSAGAIAK?**

- 27a) Lurraldea eta herritarrak.
- 27b) Lurraldea, herritarrak eta antolaketa.
- 27c) Udalerria, herritarrak eta udaletxea.
- 27d) Herritarrak, antolaketa eta eskumenak.

**28 ZER DA UDALERRIA?**

- 28a) Herriak hartzen duen lur-eremua.
- 28b) Udalaren aginpideen menpe dagoen lur-eremua.
- 28c) Udalaren izena.
- 28d) Udala amaitzen den lekua.

**29 ONDORENGOETAKO ZEIN DA TOKI MAILAKO ERABILERA PUBLIKOKO ONDASUN BAT?**

- 29a) Udaletxea.
- 29b) Hiltegia.
- 29c) Igerilekua.
- 29d) Enparantza.

**30 ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN PEAN EGONGO DIRA:**

- 30a) Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa eta erabilera ez normala.
- 30b) Jabari publikoko ondasunen erabilera komuna eta erabilera pribatiboa.
- 30c) Jabari publikoko ondasunen erabilera komun eta berezia eta erabilera ez normala.
- 30d) Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa eta erabilera komun eta berezia.

- 31 ONDARE-ONDASUNEN ERABILERA LAGATZEA GERTATUZ GERO, BEHARREZKOA IZANGO DA ENKANTEA EGITEA BALDIN ETA:**
- 31a) Lagatze hori urtebetetik gorakoa baldin bada edo hitzartutako prezioa aurrekontuko baliabide arrunten %5a baino handiagokoa baldin bada.
- 31b) Lagatze hori 5 urtetik gorakoa baldin bada edo hitzartutako prezioa aurrekontuko baliabide arrunten %5a baino handiagokoa baldin bada.
- 31c) Lagatze hori urtebetetik gorakoa baldin bada edo hitzartutako prezioa aurrekontuko baliabide arrunten %10a baino handiagokoa baldin bada.
- 31d) Lagatze hori 5 urtetik gorakoa baldin bada edo hitzartutako prezioa aurrekontuko baliabide arrunten %10a baino handiagokoa baldin bada.
- 32 HERRITARRAK HERRI-ONDASUNEZ BALIATZEAN HERRITAR HORIEN ARDURAPEKO PERTSONA KOPURUA KONTUAN HARTZEN BADA, PROPORZIONALA IZATEKO, ETA BALIABIDE EKONOMIKOEN ALDERANTZIZ PROPORZIONALA BALDIN BADA BALIATZE HORI, ZEIN IZEN IZANGO DU SISTEMA HORREK?**
- 32a) Taldean lantzea.
- 32b) Ustiakuntza berezia.
- 32c) Lote edo suerte bidez esleitzea.
- 32d) Prezio bidez esleitzea.
- 33 BESTE ONDASUN HIGIEZIN BATZUEKIN PERMUTA EGITEAREN BIDEZ ONDARE-ONDASUNAK BESTERENTZEN DIRENEAN, EZ DA BEHARREZKOA IZANGO ENKANTEA, BALDIN ETA PERMUTATU NAHI DIREN ONDASUNEN BALIOAREN ARTEKO ALDEA**
- 33a) Ez baldin bada balio txikiena duenaren %40 baino handiagoa.
- 33b) Ez baldin bada balio handiena duenaren %40 baino handiagoa.
- 33c) Ez baldin bada balio txikiena duenaren %50 baino handiagoa.
- 33d) Ez baldin bada balio handiena duenaren %50 baino handiagoa.
- 34 TOKIKO KORPORAZIOETAKO ZERBITZUEN ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ZER DIRA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAK (ZERBITZUEN ERREGELAMENDUAN LEHENGO IZENA DATOR: ZERBITZUKO FUNDAZIO PUBLIKOA)?**
- 34a) Kudeaketa zuzeneko modu bat da.
- 34b) Zeharkako kudeaketako modu bat da.
- 34c) Kudeaketa mistoko modu bat da.
- 34d) Figura horren bidez ezin da zerbitzu publikorik kudeatu.



- 35 KONTU EGIN KORPORAZIO BATEK ZERBITZU JAKIN BAT EMAKIDA BIDEZ ATERA DUELA. BA AL DU, GERO, INOLAKO ALDAKETARIK EGITERIK ZERBITZU HORREN KALITATEAN, KOPURUAN, DENBORAN EDO LEKUAN, DENON INTERESAK HALA ESKATZEN DUELA-ETA?**
- 35a) Ez, inolaz ere ez.  
35b) Baina, baina emakidadunarekin akordio batera iristen bada.  
35c) Emakidadunak ezezkorik ez badio eta arbitraje-batzordea haren aldekoa ez bada, bai.  
35d) Bai, zuzenean kudeatuko balu egin ahal izango lukeen modura.
- 36 HAUEN ARTEKO BAT EZ DA ESKAKIZUNA UDALAK ZERBITZU BAT BEREKANATU AHAL IZATEKO:**
- 36a) Zerbitzu hori merkataritza, meatzaritza, basogintza edo nekazaritzaren arlokoa izatea.  
36b) Udalak zerbitzua bereganatze horren helburua irabazia ateratzea izatea.  
36c) Oinarrizko beharrianetarako zerbitzua edo herri-onurakoa izatea, eta haien helburua herritarren interes eta onurari erantzutea izatea.  
36d) Udalerriaren barrutian ematen direnetakoa izatea.
- 37 ZEINEK IZENDATZEN DU GERENTEA ADMINISTRAZIO-ORGANO BEREZIA DUEN ZERBITZU PUBLIKO BATEN ZUZENEKO KUDEAKETARAKO ERREGIMENEAN?**
- 37a) Zerbitzuaz arduratutako Administrazio Kontseiluak.  
37b) Administrazio Kontseiluko presidenteak.  
37c) Alkateak, Administrazio Kontseiluak proposatutako hirukote bateko pertsonen artean.  
37d) Udal Osoko Bilkurak.
- 38 HERRI-ADMINISTRAZIOEN ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEAREN MENPEKO EGINTZAK NOIZDANIK AURRERA JOKO DIRA BALIOZKOTZAT ETA NOIZTIK EKARRIKO DITUZTE ONDORIOAK?**
- 38a) Ematen diren egunetik, egintzan bertan bestelakorik esaten ez bada.  
38b) Ematen diren egunetik 10 egun natural igaro eta gero.  
38c) Administrazio bakoitzean egokitzen jotzen den epea igarota, egintza ematen den egunetik.  
38d) Ematen diren egunetik 15 lanegun igaro ondoren.
- 39 FORMAZKO AKATSEK EGINTZAREN DEUSEZTAGARRITASUNA DAKARTE?**
- 39a) Inoiz ez.  
39b) Interesdunak defentsa gabe uzten dituenean.  
39c) Formazko hutsa zuzendu ezina denean.  
39d) Bai, beti.

**40 AGINTE-DESBIDERAKETAN ERORTZEN DIREN ADMINISTRAZIO-EGINTZAK, ZER DIRA?**

- 40a) Hutsalak.
- 40b) Erabat deusezak.
- 40c) Deuseztagarriak.
- 40d) Eraginik gabeak.

## ORDEZKO GALDERAK

**41 NORI DAGOKIO PROZESU AUTONOMIKOA HASTEAA?**

- 41a) Aldundi interesdun guztiei edo uharte arteko organoari, eta udalen 2/3ei, beti ere hartzen dituzten biztanleak probintzia edo irla bakoitzeko hautesle-errol-dako gehiengoa badira, gutxienez.
- 41b) Gobernu zentralari.
- 41c) Gobernu zentralari, eta erregeak berretsiko du.
- 41d) Aurreko edozeini, eta Europako agintariek berretsiko dute.

**42 EUSKADIKO JURISDIKZIO-ERAKUNDEEK ZEIN ARLOTAN DUTE AGINPIDEA?**

- 42a) Zibilean, penalean, lan-arloan eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
- 42b) Zibilean, penalean eta lan-arloan besterik ez.
- 42c) Zibilean eta penalean besterik ez.
- 42d) Civil eksklusivamente.

**43 7/1985 LEGEA. ADIERAZ EZAZU ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:**

- 43a) Udalerri guztietan egoten dira alkatea, alkateordeak eta udalbatza osoa .
- 43b) Tokiko Gobernu-Batzarra ez da udalerri guztietan egoten.
- 43c) Korporazioa osatzen duten alderdi politiko guztiek izango dute udalbatza osoaren ebazpenera jarritako gaien azterlan, txosten zein kontsultak egiteko organoetan parte hartzeko eskubidea,
- 43d) Autonomia-erkidegoek toki-araubideari egindako legeetan ezin izango dute ezarri lege honetan aurreikusitako antolaketaren osagarri den besterik.

**44 ZENBAT BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO HERRIETAN DA DERRIGORREZKOA HERRI BARRUKO TALDE-GARRAIOA ESKAINTZEA?**

- 44a) 5.000 biztanle baino gehiagokoetan.
- 44b) 15.000 biztanle baino gehiagokoetan.
- 44c) 50.000 biztanle baino gehiagokoetan.
- 44d) 75.000 biztanle baino gehiagokoetan.



**45 UDAL-AGINPIDEKO ZERBITZU PUBLIKOEN TARIFAK ZENBATEKOAK  
IZANGO DIRA?**

- 45a) Zerbitzuak balio duenaren bestekoak, handiagoak edo txikiagoak.
- 45b) Zerbitzuak balio duenaren bestekoak edo txikiagoak baina ez handiagoak.
- 45c) Zerbitzuak balio duenaren bestekoak edo handiagoak baina ez txikiagoak.
- 45d) Zerbitzuak balio duenaren bestekoak izango dira beti.

